

EZTENAKKENDUTAKO A, EZTENAZOSATU



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Couppvray (Frantzia), 1809ko urtarrilaren 4a. Louis Braille jaio zen Paris inguruko herrixkan. Hiru urte zituela, aitaren lantegian jolasean, larrua lantzeko ezten edo puntzoi batekin begi bat zauritu zuen. Zauria gaiztotu eta infekzioak beste begia hartu zion handik aste batzuetara. Azkenean, haurrak infekzioa gainditu zuen, baina ikusmena betiko galdu zuen bi begietan.

Mutikoaren jakinminak eta gurasoen jarrera egokiak bultzatuta, Louis Braille Parisko Gazte Itsuentzako Institutu Nazionalen onartu zuten hamar urterekin. Eskola aitzindaria izanagatik, metodoak ez ziren oso berritzaileak eta, nagusiki, irakasleak ahoz komunikatzen ziren ikasleekin. Valentin Haüy eskolaren sortzaileak asmatutako sistemaren bidez irakurtzen ere irakasten zieten. Haüyren liburuak latindar alfabetoan eta erliebean zeuden idatzita. Garestiak, astunak, urriak eta irakurtzen zailak ziren eta, halaber, informazio gutxi jasotzen zuten. Sistemaren muga nagusia zen begien hizkuntza erabiltzen zuela hatzentzat.

Eskolan zeuden hamalau liburuak behin eta berriro irakurri ondoren, Braillek ukimenaren bidez irakurtzeko -eta, zergatik ez, idazteko- sistema be-



Louis Braillek itsuekidazteko eta irakurtzeko sistemabatasmatuzuen, soldaduek erabilio hizuten kode batean oinarrituta. Baina sistema ez zen Braille hil eta gero arte zabalduko.

ria nahi zuen. Hala, hamabi urte zituela Charles Barbier kapitainaren berri izan zuen. Batzuek diote lagun batek irakurri zion artikulua batean izan zuela haren berri; beste batzuen arabera, Barbier bera hurbildu zen eskolara, gerran ilunpean komunikatzeko erabiltzen zuten sistema azaltzera. Hamabi puntuz eta marratxoaz osatutako kodea erabiltzen omen zuten, Paper lodian markatzen zituzten zeinuak eta soldaduek, gudu-zelaian, hatzez irakur zitzaketan mezuak, ilunpean eta isil-isilik.

Hamabost urte betetzerako, Braillek soldaduen sistema egokitua eta hobetua zeukan. Irakurtzen zailak ziren marratxoak kendu zituen, kodea sei erliebedun puntutara mugatu zuen eta letrak zuzen eta bereiz idazteko eta irakurtzeko eredu sortu zuen. Idazteko eztena erabiltzen zuten, haurtzaroan itsutu zuten tresna bera.

1852an hil artean, Louis Braille Itsuentzako Institutuan aritu zen irakasle. Baina sekula ez zioten aukerarik eman bere sistema erabiltzeko. n

The Isolator

By HUGO GERNSBACK
MEMBER AMERICAN PHYSICAL SOCIETY



The author at work in his private study aided by the Isolator. Outside noises being eliminated, the worker can concentrate with ease upon the subject at hand.

BETTMANN

Lanean kontzentratzeko tramankulua

Hugo Gernsback (1884-1967) idazle eta asmatzaileak *The Isolator* izeneko gailua patentatu eta aurkeztu zuen 1925ean. Izenak dioen bezala, kasko nabarmen horrek erabiltzailea isolatzen zuen soinetatik, ikusmen periferikoa mugatzen zuen eta, hala, arreta lanean jartzen laguntzen zion. Oxigeno botila bat ere bazeukan, erabiltzailea

arnasteaz ere kezka ez zedin. Zientzia fikzio modernoaren aitzindari izan zen Hugo Gernsback. Besteak beste, *Amazing Stories* aldizkaria sortu zuen. Eta Zientzia Fikziozko Munduko Konbentzioak banatzen dituen sariak Hugo dute izena haren omenez. Baina kasko isolatzaileak ez zuen arrakastarik izan. Zergatik ote? n